



PERTSONEN MUGIKORTASUNARI ETA PRODUKTUEN GARRAIOARI BURUZKO GAIAK NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KATEAN

- 1- Badirudi ez dagoela oso argi definituta zer agirik egiaztatzen duen ustiategi baten titularra jarduera profesionalerako egin beharreko desplazamenduak egiteko garaian. Hainbat agiri erabiltzen ari dira (Nekazaritzako Ustiategiaren Txartela edo 'Txartel Berdea', Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren alta emanda egotearen agiriak, Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren Txartela, Jarduera Ekonomikoen Gainerako Zergaren kopia...).**

Komenigarria dirudi ezartzea zein agiri zehatzek balio duten egiaztatzeko.

Ertzaintzaren erantzuna: Alarma Egoeraren esparruan, mugikortasunaren ikuspegitik, legezkotasun eta zehaztasun printzipioari jarraikiz, tasatuta ez dagoenez ustiategiaren titularrentzako egiaztapenak zein den, **planteatzen diren erantzunak edozeinek balioko luke**. Planteatzen den komenigarritasuna ulertuta eta partekatuta, Segurtasun Sailak ezin du garatu eta ez du garatu behar gai honetan dagoen erregulazioa.

- 2- Aurrekoari dagokionez, ustiategi batean titularkide bat baino gehiago badago, baliozkoa al da horietako batek gainerakoei egiaztatzea adostutako ereduak erabiliz LANAGATIK LEKUALDATU BEHARRARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK? Edo aurreko puntuan zehaztutako dokumentuekin egiaztatu behar da?**

Ertzaintzaren erantzuna: Berez, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Dekretu Legea aplikatzeko interpretazio irizpideak eta bizilekutik lantokirako beharrezko joan-etorrietarako erantzukizunpeko adierazpenaren ereduak ezartzen dituen SND/307/2020 Aginduan, martxoaren 30ekoan, ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOARI ematen zaion izaera juridikoa baimen hori hartu behar ez duten besteren konturako langileen egiaztapena besterik ez da, eta sindikatu edo enpresa ordezkariaren jarduerara bideratutako beste batzuen, lantokira joan ahal izateko. Finean, Ertzaintzaren irizpideek ezartzen duten mugaketa objektibo batetik begiratuta, ez da nahitaezkoa eramatea, baina gomendagarria da laneko joan-etorrietan emateko. Eusko Jaurlaritzak erantzukizunpeko adierazpenaren emandako eredu bat dago, baita BOEn argitaratutako beste bat ere; gainera, antzeko ezaugarriak dituzten beste eredu batzuk ere baliozkotzat jotzen dira.

Ziurtagiririk eraman ezean, emandako informazioa baloratuko da, eta, zalantzarik izanez gero, dagozkion egiaztapenak egingo dira. Hala ere,

Jefatura de la Ertzaintza

Larrauri Mendotxe Bidea, 18 ☎ + 34 946079617 📠 + 34 946079652

48950 - Erandio (Bizkaia)

Página 1 de 5



SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE

Segurtasun Sailordetza

SEGURIDAD

mugaketa subjektiboa 10/2020 Dekretua aplikatzetik kanpo dauden besteren konturako langileena bada ere, izaera juridiko orientagarria duenez, **guztiz hedagarria eta are gomendagarria da norberaren edo besteren konturako edozein langileri zabaltzea, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eta hurrengoek baimentzen duten jarduera badute.**

3- Berez, ez dago zalantzarik ustategietako langileen akreditazioari buruz, LANAGATIK LEKUALDATU BEHARRARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA adostutako ereduarekin egiten ari bada.

Baina zalantzak daude ustategietan laguntzera joaten diren pertsonak akreditatzeko moduari buruz (senideak, lagunak...). Egoera hori ohikoa da eta oso sarri gertatzen da. Lehen aipatutako Erantzukizunpeko Adierazpenaren bidez akreditatzen diren langileen antzera akreditatu daitezke?

Ertzaintzaren erantzuna: Jakitun izanik ekonomia erreala batzuetan ez datorrela bat indarreko esparru juridikoarekin, kontua da, berez, **ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**, *supra* aipatutako alarma egoeraren deklarazioaren testuinguruan, **dokumentu irekia dela indarrean dagoen arau esparruan babestutako eta araututako langile mota guztientzat.**

4- Beste kontu bat da, profesionalak izan gabe, zaindu eta mantendu behar dituzten baratzeak edo animaliak dituzten pertsonen planteatzen dutena.

Akreditazioen bat eskuratu dezakete jarduera horiei erantzuten jarraitu ahal izateko?

Ertzaintzaren erantzuna: Horri dagokionez, alarma egoeraren arloan dagoen araudiak animaliei buruzko alderdia baino ez du zuzenean arautzen. Zehazki, *Osasun Ministerioaren 2020ko martxoaren 19ko Instrukzioak, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren kudeaketan etxeko animaliei arreta emateko interpretazio irizpideak ezartzen dituenak*, adierazten du martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikuluan ez dagoela berariaz jasota etxeko animalien elikadura, erreskatea eta albaitaritzako zaintza helburu duten pertsonen lekualdaketa, animaliak hiriko espazio publikoetan bizi badira, eta jarduera hori lan, lanbide edo enpresako prestazio baten esparruan egiten ez bada.

.....
Jefatura de la Ertzaintza

Larrauri Mendotxe Bidea, 18 ☎ + 34 946079617 📠 + 34 946079652

48950 - Erandio (Bizkaia)

Página 2 de 5



SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE

Segurtasun Sailordetza

SEGURIDAD

Hala ere, osasun publikoan gerta daitekeen eragin negatiboa prebenitzeko, jarduera hori tokiko administrazioek behar bezala egiaztatutako erakundeek beren borondatez garatzen dutenean, erakunde horiek jarduera hori garatzen jarraitu ahal izango dute, 7 h) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ulertzen baita kasu horretan prestazioaren borondatezko izaera lan, lanbide edo enpresako izaeraren antzekoa dela.

Joan-etorri horiek banaka egin beharko dira, eta dagozkien egiaztagiriak eraman beharko dira.

Aitzitik, baratzeei dagokienez, ez da ezer adierazten, jakina, jarduera profesionala denean izan ezik.

Horretan guztian oinarrituta, Ertzaintzak baimendu egiten du joan-etorria baserri eta landaguneetan dauden animaliei jaten emateko.

5- Tokiko azokak eta ostalaritza itxita, euren produktuei irteera emateko, ekoizle askok etxez etxe zuzenean saldu behar diete produktua ohiko bezeroei.

Badirudi irizpide desberdinak daudela saltzeko modalitate hori gauzatzeko aukerari buruz.

Zein da Segurtasun Sailaren jarrera horri buruz?

6. puntuan erantzuten da.

6- Aurreko gaiari lotuta, Segurtasun Sailak ezarrita dauka irizpideren bat produktuak etxean saltzeko/entregatzeko?

Ertzaintzaren erantzuna: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila bat dator alarma dekretuaren adierazpena dela-eta emandako araudiarekin. Ildo horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan bertan eta ondorengo erreformetan adierazitakoaren arabera, merkataritza jardueraren esparruko euste neurrien arloan, txikizkako merkataritzako jarduera publikoari irekitzea eteteko salbuespenen artean berariaz

.....
Jefatura de la Ertzaintza

Larrauri Mendotxe Bidea, 18 ☎ + 34 946079617 📠 + 34 946079652

48950 - Erandio (Bizkaia)

Página 3 de 5



SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE

Segurtasun Sailordetza

SEGURIDAD

jasotzen da elikadura, baita Internet, telefono edo korrespondentzia bidezko merkataritza ere.

Horrez gain, planteatutako egoeran etxera saltzeko aukerari buruzko barne irizpide zehatzik ez dagoen arren, **bai adierazten da jatetxeek eta elikadurako establezimenduek janari prestatuak saldu eta horiek entregatu ditzaketela.**

Ez da ahaztu behar, azkenik, indarrean dagoen araudiaren arabera, **zehatz-mehatz adierazten dela Internet, telefono edo korrespondentzia bidezko merkataritza egin daitekeela.**

Une berean, Osasuneko sailburuaren 2020ko apirilaren 14ko Aginduan, , aldi baterako eteten baitira nekazaritzako eta abeltzaintzako elikagai eta produktuen zuzeneko salmentako aisialdiko edo jai giroko merkatu eta azoka tradizionalak, ezartzen baitira nekazaritzako eta abeltzaintzako elikagai eta produktuen zuzeneko salmentako merkatu eta azoka tradizionalen (normalean, asterokoak) baldintza sanitarioak eta arautzen baita EAEko zenbait udalerritan denda-ibilgailuak baliatuz saltoki ibiltariek gauzatzen duten jarduera, SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak sortutako pandemia dela eta.

7- Aurki hasiko dira produktua jasotzeko kanpainak (esaterako, Ibarako pipermina Gipuzkoan), eta hor nekazaritzan diharduten aldi baterako langile askok parte hartzen dute.

Ertzaintzaren erantzuna: Aipatu behar da apirilaren 8an argitaratu zen **13/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 7koa, nekazaritzako enpleguari buruzko hainbat neurri urgente hartzen dituena**; horrek erraztu dezake langileen kontratazioa eta ondorengo akreditazioa.

7.1- Langileak diren heinean, enpresa/titular bakoitzak banaka egiaztatu beharko ditu, LANAGATIK JOAN-ETORRIAK EGIN BEHARRARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN bidez. Horrela da?

Ertzaintzaren erantzuna: Gogoratu behar da ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN dokumentua ez dela nahitaezko dokumentua, baizik eta lanagatik joan-etorriak egin behar direla egiaztatzeko modu bat, bereziki gomendatzen dena. **Edozein langilek, nekazaritza jarduerako aldi baterakoak barne, eramateko aukera izango du, horrela erabakitzen bada.**

.....
Jefatura de la Ertzaintza

Larrauri Mendotxe Bidea, 18 ☎ + 34 946079617 📠 + 34 946079652

48950 - Erandio (Bizkaia)

Página 4 de 5



SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE

Segurtasun Sailordetza

SEGURIDAD

7.2- Lanera joateko zein itzultzeko, eta produktua jasotzeko lanetan lursail batetik bestera mugitzeko, langile horiek joan-etorri ugari egin behar dituzte. Aurreko kanpainetan, joan-etorri horiek gehienbat furgonetetan egin dira, ustiategi kontratatzailearenak izan zein langileren batenak.

Ez dago desplazamendu horiek egiteko garraio publikorik, eta ibilgailuak erabiltzeko murriztapenak ezarri direlarik, nabarmen zailduko da uzta jasotzea.

Horri buruzko bi alderdi:

Zein da Segurtasun Sailak 7, 8 edo 9 lagun garraiatzeko ibilgailu baimendunak okupatzeko irizpidea?

Aztertu daitezke zein segurtasun neurri, NBE eta antzekoekin handitu daitekeen ibilgailu bateko bidaiarien kopurua?

Ertzaintzaren erantzuna: «Bederatzi plaza arteko ibilgailuetan –izan garraio publikoa, pribatu osagarria edo partikularra–, pertsona batek baino gehiagok bidaiatu behar badu, **errespetatu egingo da eserleku lerro bakoitzean gehienez pertsona bat joatea, eta ahalik eta distantzia handiena egongo da bidaiarien artean**».

NBE-ez hornitutako bidaiari kopurua handitzeari dagokionez, **EZ**.

Erandio, 2020ko apirilaren 15a.